1. Inguruko orube, parke edo lorategi batera irtengo gara, edo, are errazago, eskolako jolastokira. Gutxienez, hiru lursail aukeratu ditugu, geroago aztertzekotan, eta lau taketez eta soka batez zedarrituko ditugu. Onena lurzoru mota ezberdinak dituzten hiru ingurune hautatzea litzateke: aparkalekua, lorategia, baratzea...

2. Aukeratutako sail bakoitzeko lurzoru laginak hartu-



ko ditugu; ondoren, marraztu edo kartulina handi batean itsatsi ahal ditugu. Horrela, lehenengo behaketa egingo dugu: lagingen arteko ezberdintasunen zehaztapena eta sailkapena. Urtaro ezberdinetan egin dezakegu lan hori, urtaroen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak ikusteko.



3. Gure inguruko sailetako lur laginak kutxatiletan ipini eta etiketa jarriko diegu (parkea, jolastokia, baratzea, orubea...).

4. Azkenik, lur laginak urarekin nahastuz, tindagai naturalak lortzen saiatuko gara; horrela lortzen ditugun koloreekin, marrazkiak egin ditzakegu, bai eta aurpegia margotu ere.





Lurzoruko bizia

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

HELBURUA

- Gure inguruko lurzoruan bizi diren izakiak hurbiletik ezagutzea.

MATERIALA

- ◆ Lupa, tripodea, inbutua, bahea eta ontzi zabala.

Urratsez urrats

Hasteko, gure ikastetxeko edo auzoko baratze, lorategi edo zu-haizti bateko lur lagina hartuko dugu (humus, hosto eta guzti).

Gero, marrazkian ikusten den bezala ipiniko ditugu laborategiko


tresna guztiak. Hartu dugun lurra bahearen gainean ipini, eta piztutako lanpararen azpian jarriko dugu guztia, berotu dadin.


Denboratxo bat iraganda, ontziaren oinarrian, beroaren eta argi biziaren eraginetik ihes egin duen guztia aurkituko dugu. Lupaz begi-

ratu ondoren, lehengo tokira eramango dugu lagina.

Proba egin eta gero, erantzun galdera hauei:

- Nor bizi da gure lurzoruan?
- Zer gertatuko litzaieke izaki horiei lurra zikinduz gero?





Lurzoruaren kutsadura

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.

MATERIALAK

- ◆ Bi iragaztontzi.
- ◆ Bi ontzi.
- ◆ Neurriak dituen ontzia.

HELBURUA

- Lurzoruaren kutsadura arazoaz jabetzea.

ARIKETA BI fasetan egingo dugu:

Lehenengo fasea: ur zikinarekiko esperientua

Gure ikastetxeko edo herriko bi lur lagin hartuko ditugu (bietako bat, hondar lurraena). Bi ontzien ahoan, iragaztontziak ipiniko ditugu eta, horien gainean, hartutako laginak.

Bestalde, neurriak seinalatuta dauzkan ontzi batean, ur zikina jasoko dugu —harrikoa egiteko erabilitako xaboiaren hondarrekiko edo etxean erabilitako olioarekin nahastutako ura, akuarela zintatutako ura...—.

Orain, iragaztontzi bakoitzetik ur kantitate bera iragazi, ontzi bakoitzaren oinarrian dagoen kantitatea neurtu, eta bi lur motetan geratu diren zikinkeria kantitateak konparatuko ditugu.


Saiatu galdera hauei erantzuten:


- Bi laginetako zeinek zurgatu du zikinkeria gehien?
- Zer gertatuko da lurzoruak zurgatu duen zikinkeria horrekiko?
- Beste zerbait zikintzeko arriskurik badago?

Bigarren aldia: ur garbiarekiko esperientua

Oraingoan, ur garbia botako dugu bi laginen gainera (euria bailitzan botako dugu). Erkatu iragazitakoa.

- Nola dago orain ura? Bota duguna bezain garbi dago?
- Nora doaz lurrazpiko ur zikinak?





Galdu egiten da lurzorua?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- PLASTIKA.

MATERIALAK

- ◆ Kartoizko bi kutxa.
- ◆ Ureztontzia edo zulatutako lata.
- ◆ Lurra eta soropila.
- ◆ Aluminio papera edo liburuak forratzeko plastikoa.

HELBURUAK

- Deforestazioak dakarren ingurumen inpaktua aztertzea.
- Landarediak lurzoruen higaduran duen eragina egiaztatzea.

FITXA HONETAN esperimentu bat proposatzen dizuegu.

Pausoz pauso

1. Bi lore-ontzi luze erabiliko ditugu; aluminio paperaz edo plastikoz estalitako kartoizko bi kutxa ere izan daitezke. Begiratu marrazkiei: kutxak mendi baten hegalaq bailiran ipiniko ditugu (lurzoruaen jarduera imitatu ahal izateko).



2. Bi kutxek inklinazio edo malda bera izan behar dute. Beheko aldean bi ontzi ipiniko ditugu irekita: horiexek jasoko dute hegaletatik irristatzen den oro.




3. Lore-ontzi edo kartoizko kutxetako batean lurra ipiniko dugu, eta bestean, soropil zati bat, lurrak eta soropilak azalera bera okupatzen dutela. Soropila menditik har dezakegu, eta gure esperimentua amaitu bezain laster bere lekura eraman berriro.

4. Bi lore-ontzien edukia ureztatuko dugu, euriaren efektua imitatuz.

5. Maldetatik irristatzen den ura ontzietan hauspeatzeaz utzi ondoren, gertatutakoa konparatuko dugu:

- Zeinek aprobetxatu du hobekien euriaren efektua?
- Zeinek galdu du lur gehien?
- Zer ondorio atera ditzakegu esperimentu honetatik?




Bi lore-ontzien arteko aldeak hobeto ikusteko, bete honako taula hau:

	Batutako ur kantitatea	Batzen emandako denbora	Uraren itxura
1. maketa			
2. maketa			

Iturria

Sukarrietako ESZ; koordinatzaile Jose Larrauri: **50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegitik ikertzeko**. BBK, Eusko Jaurlaritza. Bilbao, 1996.



Lurzoru ekosistema

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.

MATERIALAK

- ◆ Lurzoruaren biologiari buruzko informazioa ematen duten liburuak (adibidez, Investigando el suelo. Vivac bilduma. Teide).

HELBURUA


- Lurzoru ekosistemaren morfologia ezagutzea.
- Lurzoruak materiaren birziklapenean duen eraginaz jabetzea.

EMAN DEZAGUN basoko lurzoruan zer dagoen jakiteko egindako ikerketan hauek aurkitzen ditugula:

Izaki bizidunak: bakterioak, protozooak, onddoak, nematodoak, lur-zizareak, barraskiloak, kuku-rutxak, miriapodoak, (ehunzango edo milazangoak), araknidoak (akaro eta armiarmak), intsektuak

(tisanuruak, dipluruak eta inurriak), satorrak, satitsuak, landare sustraiak.

Beste osagai batzuk: eroritako hostoak, zuhaitz adarrak, belar ihartuak, goroldioak, animalia hilak, humusa, partikula solidoak, poroak eta arrakalak, hezetasuna, airea eta gas mineralak.



Ariketak

1. Azaldu aipatutako osagaien artean dauden erlazioak; honelakoak izan daitezke: "A" osagaia "B" osagaiarekin erlazionatzen da (adibidez, tisanuruek eroritako hostoak jaten dituzte); A-k B-n du eragina eta, aldi berean, B-k A-n du eragina (eroritako hostoek lurzo-

ruaren hezetasuna gordetzen dute eta hezetasunak hostoen deskonposizioan laguntzen du).

2. Aipatutako izaki bizidunetarik, zein elikatzen dira materia organikoz? Zer bihurtzen dute materia hori? Nola birziklatzen du lurzoruak materia?
3. Azaldu zer ondorio jasango lituzkeen basoak sutea izan ostean.



Aldatu egiten dira lurzorruak?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUAK

- Lurzorua izaera dinamikoa barneratzea eta beraren ezaugarriez ohartzea.
- Lurzorua babesteko neurriak aztertu eta proposatzea.

A) Ondoko marrazkian, non daude lurzoru onenak? Zeinek dute desagertzeko arrisku txikiagoa?



B) Hiru marrazki hauetan hiru lurzoru profil irudikatu dira.



Begiratu ondo eta erantzun galdera hauei:


- Beti izan dira horrelakoak A, B eta C lurzorruak? Beti izango dira horrelakoak?
- Ordenatu hiru profilak bakoitzaren garapen mailaren arabera. Zeinek izan ditu aldaketa gehien?

- Lehenengo marrazkiari (A) dagokionez, zure ustez, paisaiako zein lekutan egon liteke aztertutako lurzoru mota bakoitza?
- Garatu liteke bertan nekazaritza edo basogintza ustiapenik? Zer neurri hartu beharko genituzke lurzorruak egoera onean mantentzeko?

Iturria

ARTIGUE, B. et al. **Proyecto curricular del área de ciencias de la naturaleza. Materiales curriculares ESO 4.** Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1995.

SAKONTZEN



ekin eta ekin

BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

Lurzorua lurrazalaren atala da; izaki bizidunek harri aman gauzatzen duten ekintzaren eta inguru horretako giro baldintza berezien ondorioz eratzen da. Etengabeko aldaketa jasaten du, harri aman gertatzen diren prozesu fisiko, kimiko eta biologikoen multzoaren emaitza da eta.



Degradatu egiten dira lurzorruak?

HELBURUAK

- Lurzorua funtzioei buruzko gogoeta egitea.
- Lurzorua degradazio prozesuak ezagutzea.

LURZORUAREN eraketa oso prozesu geldoa da, izan ere, 30 cm-ko lurzoru geruza eratzeko, 1.000 eta 10.000 urte bitarte behar dira. Ikuspuntu horretatik, lurzorua baliabide berriztaezintzat hartu behar da eta, horregatik, zaindu beharreko ondasuntzat.

Giza jarduerak lurzorua dute euskarri, eta lurzorian gertatzen dira ekosistemen iraupenerako ezinbesteko diren prozesuak ere.

Lurzorua degradazioa lurzoruek euren funtzioak betetzen segitzeko duten edo etorkizunean izan dezaketen ahalmena murrizten duen andeatze prozesua da. Degradazioaren arrazoiak naturalak zein antropikoak izan daitezke.

Lurzorua funtzioak

Natur funtzioak

Habitata eta euskarri biologikoa	Lurzorua kalitatea urritzeak bioaniztasuna urritzea dakar: espezieak eta ekosistemak galtzen dira.
Ekosistemaren eta natur zikloen euskarria	Ziklo kimikoak lurzorian gertatzen dira: landareentzako eta lurzoruko mikroorganismoentzako elikagaien sorrera eta garraioa (karbono, sufre, nitrogeno eta fosforo zikloak).
Iragazle eta indargetzailea	Lurzorua iragazki eta indargetzailearen egiten du, substantziak atxikiz. Lurrazpiko eta azaleko urak babesten ditu, agente kaltegarriak sartu eta elikadura ziklora (landareak, animaliak eta gizakiak) igarotzerik eragotziz. Konposatu organiko batzuk eraldatu egiten ditu, deskonposatuz edo beraien egitura aldatuz; horrelaxe lortzen da substantzia askoren mineralizazioa.

Funtzio materialak

Lehengai ez berriztagarrien hobiak	Eraikuntzarako mineral ez-metalikoak (harria, marmola, kareharria, igeltsua, arbelak, hareak), mineral metalikoak (blenda, galena, siderita, pirita) eta erregai fosilak, ikatza kasu, ematen dizkigu.
Lehengai iturri berriztagarriak	Gizaki zein animalien janariak eta beste lehengai berriztagarri batzuek zuzeneko lotura dute lurzoruarekin, elikagai, aire eta ur hornikuntzari eta lurzorua euskarri funtzioari dagokienez.
Etxebizitzaren eta azpiegituren kokalekua	Azpiegiturak garatzeko ingurune fisikoak da: etxebizitzak, industria, eraikinak, errepideak, aisiarako guneak, hondakinak biltzeko eremuak.
Historiaren artxibategia	Bere eboluzioaren eta gizakiek bertan izan duten eraginaren historiaren hondarrak gordetzen ditu.

Lurzoruaren degradazioa eragiten duten fenomenoak

Degradazio prozesu fisikoak

Trinkotzea

Nekazaritzan erabiltzen den makineria astunak eta gehiegizko larreratzeak (lurzoruaren hezetasuna handiegia denean) eragindako efektu errepikakor eta metagarriaren ondorioa da. Prozesu honi dagokionez, eraikinak dauden lekuak eta jende asko joaten den aisialdiko guneak ere minberak dira.

Degradazio prozesu kimikoak

Azidotzea

Lurzoruko H^+ ioien kontzentrazioa areagotzea da. Arrazoi ugari hauengatik gertatzen da: naturalak (euri urak katioiak garbitzea, lurzoruko materia organikoaren deskonposizio mikrobiarra), nekazaritzarekin loturikoak (abonu azidotzaileak) edo kanpoko kutsadura.

Materia organikoaren galera

Hauek dira arrazoi nagusiak: laborantza trinkoa, eta otalurretako uzta hondarrak edo larre-rako lekuetako sastrakak erretzea.

Kutsadura

Gizakien jarduerak lurzorua konposizioa narriatu egiten dute, euren iraunkortasun edo kontzentrazio handiagatik lurzoruak ezin deskonposatu ditzakeen kutsagarriak erantsiz.

IHOBEk lurzoru kutsatuei buruz argitaratutako posterrean oinarrituta (ikus ale honetako *baliabideak eskura* sekzioan), lurzoruaren funtzioak eta degradazio bideak identifikatu behar dituzue bertan.



Iturria:

http://www.euskadi.net/vima_suelo/indice_c.htm

Beste batzuk:

<http://www.iho.be> ● http://themes.eea.eu.int/Environmental_issues/chemicals ● <http://www.ciedperu.org/manuales/suelin.htm>

Lurzoruan ere jolasten da

Ziurrenik ondo dakizue helduek nolako kritikak egiten dizkizueten, ezta? "Egun osoa ordenagailuaren aurrean ematen du, kontsolarekin engantxatuta dago, txataren bidez baino ez da komunikatzen..." Besteek etiketa jartzea ez da ona, ez; izan ere, ez da erraza gero kentzea. Gainera, parrastada hori ez da guztiz egiazkoa, ziur; era askotan dibertitzeko behar besteko irudimena eta kemena badaukazue.

BETIDANIK egin izan diren eta aurretik ere egingo diren jolas tradizional batzuk aurkeztu nahi dizkizuegu orain. Agian, baten bat ezagutzen duzue dagoeneko. Guztiek daukate alderdi komun bat: lurrean egiten dira (plazan, parkean, hondartzan...) eta jolasteko, klariona, harriak, txapak, puxtarriak... eta beste ezer gutxi behar duzue. Hona hemen jolas horietako baten arauak.

Zerua eta lurra

Oso jolas erraza da, antzina greziarrek eta egiptoarrek jada egiten zutena. Klariona, harriak eta... punteria eta oreka besterik ez duzue behar.

1. Lurrean, klarionaz, marrazkikoa bezalako ibilbidea marraztu behar duzue (ikastetxeko jolastokian marraztu eta beste egun batzuetarako utzi ahal duzue marraztuta). 1. lau-

kitik kanpoko espazioa Lurra da, eta goiko zirkuluerdia (9) Zerua.

2. Lehen jokalariek harria lauki batera botako du (adibidez, 6.era); baina kontuz ibili beharko du harriak marra ez ukitzeko eta laukitik kanpora ez botatzeko. Huts egiten badu, hurrengoak botako du. Punteria ona baldin badu, harriaren bila joango da.
3. Joateko bidea: txingoan saltoka joango da laukiz lauki; 4-5. eta 7-8. laukietan, bi oinak aldi berean bermatuko ditu. Harria dagoen laukia ez da zapaldu behar. Zerura iristean, atsedean hartu eta buelta eman ahal dugu.
4. Itzulera: laukiz lauki txingoan saltoka itzuliko gara eta, harria dagoen laukia (6.a) zapaldu gabe, hura jaso eta Lurrera eramango dugu. Ibilbide osoa huts egin eta marrarik zapaldu gabe egitea lortzen bada, berriro botatzen da harria.
5. Txanda errepikatzen duen jokala-

riak atzeraka eta sorbaldaren gainetik bota behar du harria. Lauki baten barruan jauzten bada, laukia jokalaria horrena izango da eta bere izena idatziko du bertan. Lauki horretatik igarotzean, jabeak bi oinak bermatuz hartu ahal du atsedean, baina gainerako jokalariek ezin dute lauki hori zapaldu.

6. Jolasaren amaiera: lauki guztiek norbaiten izena daukatenean.

Jolas honek izen asko ditu (*truke-mea*, *txingoka*, *tokea*), herriaren arabera. Lurrean forma askotako egiturak marraztu ahal dira. Besteren bat ikusi nahi baduzu, Tomás Blanco García-ren *Para jugar como jugábamos* izenburuko liburuan (Salamanca-ko Diputazioak argitaratua), 88. eta 96. orrialdeen artean, beste modelo batzuk aurkituko dituzue (*armairua*, *laranja*, *astea*, *dantzaria*, etab.).



Lurrean egiteko beste jolas batzuk

Ura, lurra eta airea: erreflexuak eta azkartasuna lantzeko.

Txapak: ezinbestekoa da oztopo lasterketa gainditzeko trebetasun pixka bat izatea.

Zirkuluak: punteria behar da.

Sey: jolas afrikarra, hondartzan egiteko oso aproposa.

Puxtarriak eta **igela:** punteria behar da.

Jolas tradizional, erraz eta dibertigarri horiek honako liburu honetan aurkituko dituzue: *El gran libro de los juegos*. Parramón Ediciones. Bartzelona, 1998.



Los retos de la Educación Ambiental



Ricardo de Castro

Director de educación ambiental de la Junta de Andalucía.

AVANZAR EN LA CONSTRUCCIÓN de una sociedad más sostenible y solidaria no es posible sin contar con las personas y con los grupos sociales, ya que, por un lado, los actores sociales son a su vez responsables directos de esta situación de crisis socioambiental (evidentemente, asociada a unos estilos de vida y comportamientos específicos), y, por otro lado, también las personas reciben el impacto de las problemáticas ambientales locales y globales. La capacidad de los sistemas sociales para impactar sobre los sistemas naturales ha sufrido, en relativamente poco tiempo, un desarrollo espectacular, a cuyos efectos se están sumando los impactos larvados de la acción humana sobre el medio ambiente a lo largo de los tiempos.

En este contexto, la educación ambiental puede jugar un papel determinante, como ámbito que engloba los diferentes instrumentos sociales con el objetivo de favorecer conocimientos, actitudes y acciones a favor del entorno. Cuenta con herramientas como la capacitación, la comunicación y la información y la participación.

En primer lugar, asumir el papel fundamental que las personas y los sistemas sociales tienen con relación a la problemática ambiental y a las posibles soluciones de esta situación obliga a adoptar con profundidad un enfoque social que posibilite una evolución desde una perspectiva tradicional, centrada principalmente en la descripción de los recursos ambientales y en el conocimiento de las características del entorno, y hacia otra que pivote sobre las capacidades de las personas para comprender y actuar sobre su entorno. Este reto real y urgente exige la adopción de un compromiso de cambio a gran escala que, sobre todo, debe producirse en la esfera de los comportamientos sociales e individuales. Máxime, cuando el desarrollo de cualquier acción tecnológica o legal dirigida a la resolución de problemas ambientales está abocado al fracaso, si no es tenido en cuenta el elemento humano, responsable último de esta situación conflictiva. El marco de lo social es el ámbito donde deben producirse los cambios para el desarrollo de una sociedad sostenible. De manera que la sostenibilidad debe entenderse, sobre todo, como una construcción social.

Tradicionalmente, las iniciativas se dirigían al marco del sistema educativo formal, donde los docentes actúan como mediadores ante sus alumnos. En la actualidad, es

necesario insistir en que en las acciones de educación ambiental no deben considerarse unos los actores por excelencia, ni una la clientela por defecto. Cada persona, según el rol que juegue en cada momento y en cada contexto vital (en la escuela, en el hogar, como consumidor, en el tiempo de ocio, como miembro de una comunidad, participando en una asociación, en el lugar de trabajo...), tiene amplias responsabilidades en la conservación de los recursos naturales y en la mejora de la calidad ambiental.

Alumnos y alumnas que influyen sobre su familia y sobre otros adultos, consumidores que posibilitan cambios en las conductas de las empresas, electores que pueden afectar a la acción de gestores y políticos... son ejemplos de este aserto. Así, cada grupo social puede ser, simultáneamente, mediador y población-objetivo, y es crucial reconocer la trascendencia de todos los actores sociales, destacando la responsabilidad de cada uno en la influencia hacia otras personas para la extensión de comportamientos proambientales y sostenibles.

La educación ambiental puede dirigirse a multitud de destinatarios diferentes, con perfiles de comportamiento ambiental también diversos, en un conjunto de escenarios y situaciones sociales, económicas, culturales y ambientales, en relación a un amplio catálogo de problemas del entorno y con la posibilidad de incidir en variados objetivos específicos.


Esta situación compleja e indeterminada debe obligar a los profesionales que trabajan desde esta perspectiva a mantener una actitud abierta y flexible acerca de la integración de diversas metodologías y estrategias de intervención para mejorar la relación de las personas con su entorno. Así, deben combinarse estrategias directas e indirectas, centradas en acciones basadas en la investigación, la comunicación, la información, la capacitación, la participación..., ya que estas herramientas no entran en competencia, sino que más bien se refuerzan entre sí.

El reto está en demostrar la relevancia de las estrategias propias de la educación ambiental en relación con el tratamiento de los problemas ambientales; sobre todo, cuando estos dependen, casi en su totalidad, del comportamiento individual y colectivo de las personas. No puede abandonarse la intervención ambiental a tratamientos únicamente legislativos o tecnológicos.

SARETIK BUELTAKA



Ibiltariak sarean **www.andarines.com** Mendian ibiltzea gustuko baduzue, edo oinez bide berrietan ibiltzen hasi nahi baduzue, webgune honetan proposamen ugari aurkituko dituzue. Albisteen atala eta antzeko beste webgune batzuekiko loturak ere baditu.



Babes ditzagun Lurreko basoak **www.wrm.org.uy/deforestación** Webgune honek, besteak beste, planetako basoei, horietako askok jasan duten deforestazioaren zuzeneko edo zeharkako arrazoiei eta basoak salbatzeko kanpainei buruzko dokumentazio interesgarria eskaintzen du.



Zeuk ere har dezakezu parte: bioaniztasuna babesteko elkarteak **www.greenpeace.org** GKE honen eta helburu berberak dituzten beste batzuen bidez, zeuk ere har dezakezu parte bioaniztasuna babesteko eta defendatzeko lanetan.



Gazteriaren Kontseiluko elkarteetako jarduerak era guztietakoak dira.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua: elkarteetako topagunea

EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK) mota ezberdinetako talde eta mugimenduen topagunea duzue. Bertan, gazteentzako interesgarriak diren gaiak (aisia, astialdiko hezitzailea, ekologia, bakerako heziketa, enplegua, etxebizitza...) denon artean lantzen ditugu, proposamenak, ekimenak edo salaketa lana ahalbidetuz. EAEko hiru lurraldeetan gaude eta beraz, gurekin harremanetan jarri nahi ezkeror, horixe duzue bidea. Beste batzuekin elkarlanean zerbait egiteko gogoia baduzu, lagun gaituzu... Ekin lanari!!

Araba

Ramiro de Maeztu 15 - 01008 GASTEIZ
© 945 22 06 01 / Faxe: 945 22 06 01
Posta-e: gasteiz@egk.org

Bizkaia

Autonomía 44 etxabea 48010 BILBAO
© 94 443 61 43 / Faxe: 94 444 81 71
Posta-e: bilbao@egk.org

Gipuzkoa

Andia 11 Nagusia 20004 DONOSTIA
© 943 42 97 67 / Faxe: 943 42 98 37
Posta-e: donosti@egk.org

www.egk.org

Bideoklubean

Nola ikusten ote gaituzte inurriek?

Cariño, he encogido a los niños

Joe Johnston ipar amerikarraren abentura eta fikziozko komedia honekin, ondo pasatzeaz gain, hobeto ulertu ahalko duzue lurzoruan bizitzeak dakarrena. Wayne-k, mundu guztiak erotzat hartzen duen zientzialariak, pertsonak inurrien neuriraino txikiagotzeko ahalmena duen makina elektromagnetikoa asmatu du. Eta horixe egin du bere seme-alabekin eta horien lagunekin: hazbete laurdeneko neurriraino txikiagotu. Imajina dezakezue zenbat denbora behar duen inurriak gure urrats baten tarteak ibiltzeko?





Telebista

Zer gertatzen ari da munduan?

Mundo.hoy

(ETB2: igandero, 13:15ean)

MIRENTXU PURROYK, programa dokumental hori azken urte eta erdi honetan zuzendu eta aurkeztu ez ezik, xehetasunez ikertzen ditu astero aurkezten dizkigun gaiak. Mundua pil-pilean dago egunero eta, agian, albistegi edo egunkarien bitartez heltzen zaizkigun berriak ez dira nahikoa gertatzen den guztiaren gaineko informazio objektiboa edukitzeko. Emititu diren saioetako batzuen zerrenda aurkezten dizuegu hemen, **Mundo.hoy** programak aztertu ohi dituen gai guztiei buruzko ideia egin dezazuen: *Gaur egungo janaria*, *Ume esklaboak*, *Globalizazioa: indarkeria ala elkarriketa?*, *Edertasuna edozeren truke...*

www.eitb.com/mundohoy

Irakurgaiak

Viaje al centro de la Tierra

Julio Verne

Espasa Juvenil. Madril, 1999.

Su imaginación se perdía en un mundo ideal (...) vivía lejos de la tierra... Horrela deskribatzen du Axelek bere osaba (Otto); bi horiek eta hirugarren batek, Hansek, Lurraren erdigunerako bidaiari ekingo diote. J. Vernereren bigarren nobela den honetako protagonista lurrarzpiko mundu bat aurkituko dute Stromboli sumendiaren barruan, eta abentura ausartak eta zirrara handiak bizi izango dituzte sumenditik ihes egin arte. Abentura eta fikzio nobela honen idaz-



learen obra hizkuntza gehienetara itzuli direnetakoa da. Entzun dituzue inoiz Nemo kapitaina, Migel Strogoff, Grant kapitaina...? Horiek guztiak idazle frantziar honen irudimen harrigarriak sortu zituen. Datu bitxi bat: hamaika urte zituela gurasoen etxetik ihes egiten saiatu eta huts egin ostean, Julio Vernek zin egin zuen sekula ez zuela berriro bidaiarik egingo, eta, besteak beste, hoge mila

legoa itsaspean ibili eta llargira joateari ekin zion, bere irudimen eskergaz beste ibilgailurik gabe.

Julio Vernereren obra hau Interneten daukazue, kapituluak: www.bibliotecasvirtuales.com/biblioteca/julio-verne/viajealcentrodelatierra. Idazle honen bizitzari buruzko informazio gehiago: www.ciencia-ficcion.com/autores/jverne.htm

Musika

Erritmo tradizionalen eta beste musika batzuen alkimia

Igelaren Banda


Banda hau 1998an sortu zen. Hainbat taldetako musikariek osatzen dute, eta euren esperientziak eta estilo eta kutsu propioko musika egiteko laketak elkartu dituzte banda honetan. Musikarion berezitasuna soinu tradizionalak berreskuratu eta erritmo berri bihurtu nahia da, askotan inprobisaziotik abiatuta. Igelaren Bandako taldekideak euskal musikaren panoramako talde eza-gunekin aritu dira lanean



(Oskorri, Kepa Junkera, Oreka TX, Ruper Ordorika, etab.).

www.e-boza.com

Jolasak



Harriak, makilak, harea eta... jolastera

Juegos saharauis para jugar en la arena

Fernando Prieto Cebrián
Miraguano Ediciones. Madril, 1999.

Bizi diren ingurunearen lazatasuna gorabehera, sahara-rrek, mendeetan zehar, ez dute jolasteko gogo galdu. Harea (soberan daukate eta), harriak, maskorrak, makilatxoak, tortolotasak eta abar erabiliz eta euren asmamenarekin, dametan edo beste jolas tradizional batzuk egiteko taulak prestatzen dituzte. Basamortua urrun samar geratzen bazaigu ere, hemen hondartza asko dauzkagu liburu honen egileak (Saharan urte asko eman dituen) proposatzen dituen jolasetan aritzeko.

Ruta industrial por Gipuzkoa

28

LURZORUA

EL SUELO Y EL PAISAJE de determinadas zonas del País Vasco están ligados a la historia del hierro y a todo lo que el sector de la siderometalurgia supone. En este apartado os proponemos una excursión en familia por las localidades gipuzkoanas de Legazpi, Zerain y Ormaiztegui, puntos donde se ubica la ruta. A través de ella podréis viajar en el tiempo y conocer el entorno industrial y las costumbres de las familias obreras de los años 50. A lo largo de esta ruta recorreréis los lugares asociados a la industria minera de la época: el economato, el dispensario médico, la pensión para los obreros, etc.

Zerain, municipio situado en el extremo sur del territorio, supo explotar desde el s. XII sus minas de hierro. En el Coto Minero de Aizpea, tendréis la oportunidad de conocer la conjunción de vestigios medie-




Vista de los hornos del complejo minero de Aizpea, junto a Zerain.

vales con otros restos más modernos: galerías, bocaminas, polvorines... así como los túneles y teleféricos que transportaban el mineral hasta Ormaiztegui.

El Museo Etnográfico os muestra el *modus vivendi* de la población rural (la casa, las costumbres, la agricultura, etc.).

Ormaiztegui: pocos kilómetros al norte se encuentra el Viaducto de Ormaiztegui, conjunto construido en 1864, de 18.000 toneladas de hierro, con una longitud de 289 metros y sostenido por 4 pilares. En la misma localidad se encuentra el Museo de Zumalakarregi, que alberga objetos personales de este personaje histórico, además de una biblioteca, un archivo, etc.



Un detalle del impresionante viaducto de Ormaiztegui.



Maquinaria industrial conservada en el parque de Mirandaola.

Legazpi. En este pueblo podréis visitar la Ferrería de Mirandaola (en el parque del mismo nombre); esta ferrería (la única conservada de las siete que existieron) se puso en funcionamiento en el s. XV; ha sido restaurada y, actualmente, funciona regularmente. Dentro del parque hay instalado un diaporama gracias al cual conoceréis la evolución de la siderurgia en el valle. En las inmediaciones del parque también podréis observar el Palacio de Elorregi y el Molino de Igarraide.

Si tras terminar el circuito, aún os sobra tiempo, podréis acercaros a otros lugares de interés: alrededores del Monte Aizkorri, Oñati, Basílica de Loiola, Ermita de la Antigua, etc.

Teléfonos de contacto

Zerain: Oficina de Turismo
 ☎ 943 80 15 05
 Correo-E: mandio@retemail.es

Legazpi: Parque de Mirandaola
 ☎ 943 73 04 28
 Correo-E: mirandaol@lenbur.com

Ormaiztegui: Museo Zumalakarregi
 ☎ 943 88 99 00
 Correo-E: zm.k6@adegi.es



Casa-palacio medieval situada en Zerain.

VITORIA-GASTEIZ

GI-627





Bizi lur Biotxuren joko haundia

Biotxuren jokoak euskal geografiako paisaiak erakusten dituzten hiru puzzle muntatzeko piezak dakartza. Lehenengo puzzlean gaur egun ditugun ingurumen arazoak ikusten dira: uren kutsadura, zarata, hondakinak... Txartelek aurkezten dizkiguten egoerak eta egoera horien aurrean hartzen ditugun erabakiak medio, puzzlearen pieza batzuk ingurumen egoera hobea edo txarragoa irudikatzen moduan ordeztuz joan gaitzek. Finean, lurraldearen planifikazioa simulatzean datza. (Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera eta talde txikitik erabiltzekoa). Ikastetxe gehientsuetan dago.



MULTIMEDIA

E.A.E.ko ingurugiroari buruzko kartografia sistema

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, 2.000.

2.000. urtean argitaratutako CD honetan, Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazio kartografiko guztia bildu da. Informazioa gainezarritako geruzetan irudikatu da, ikasleekin zuzenean lan egin ahal izateko. Alde batetik, eskalak edo gai monografikoren bat (topografia edo landaredia kasu) lantzeko erabil daiteke. Eta bestetik, airetiko argazkiak lurraldeaz ematen digun itxura, eta gizakiok inguruan daukagun espazioa erabiltzeko moduak ikustea ahalbidetzen digu. Kartografia honetan, lurraldeka bildu dira herri izen guztiak, norberarena



errazago aurkitzeko. (Oso egokia Bigarren Hezkuntzako goi zikloetarako eta Batxilergo eta Heziketa-zikloetarako).



Eusko Jaurlaritzaren kontsumo tailerrak

EUSKO JAURLARITZAKO Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Lehen Hezkuntzari eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari zuzendutako kontsumo tailer ibiltariak antolatu ditu; aurtengoak hamaikiak dira.

Iraupen laburreko (ordu eta erdia) eta unean uneko jarduerak da, kontsumo arloaren alderdi zehatz batean oinarritua. Lehen Hezkuntzarako, hamalau tailer aukera daude, eta hamabost Bigarren Hezkuntzarako. Ikastetxe bakoitzak gutxienez bi eta gehienez bost egin ahal izango ditu; hala ere, aukeratutako tailerrak ikasturte batean baino gehiagotan garatu daitezke.

Jardueraren atal garrantzitsuenetako bat irakasleei kontsumitzailearen hezkuntzari buruz etapa bakoitzerako dagoen material didaktiko espezifiko aurkeztu zaiona da, bai eta gurasoei, zazpi gairen artean aukeratutakoari buruz, eskaintzen zaien informazio hitzaldia ere.

Hona hemen parte hartzeko betekizunak: irakasleak tailerretan egotea, beharrezko azpiegitura (bideoa, erretroproiektorea, etab.) duten hiru ikasgela, eta Eskola Kontseiluak edo Gurasoen Batzordeak gurasoak beraientzako hitzaldira deitzeko konpromisoa hartzea.

Informazio gehiago:

☎ 945 01 99 26

Material didaktikoak

Contaminación de suelos


Sergio Jiménez Suárez.

Hiares Editorial. Madrid, 1996.

Diapositiba bilduma honek ingurumen arazo ugari aztertzen ditu, lurzoruen kutsadura arazo horietakoa delarik. 24 diapositiba horiekin, lurzorua kutsatzen dituzten jarduerak eta ageri ohi diren eragile kimiko garrantzitsuenen buruzko erakustaldia presta dezakegu. Ez dira irudi hutsak, gaiaren errealitateari buruzko estatistika datuak aztertze-ko grafikoak ere baditu eta. (Egokiagoa Bigarren Hezkuntzan Lehen Hezkuntzan baino).



Kontsultarako materiala



Izen Geografikoen Glosarioa

Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Bilbo, 2001.

Glosario honetan kontsulta egitean, bilatzen dugun izen geografikoaren definizioa eta dagokion arlo edo erreferentzia aurkituko ditugu; era berean, gaztelaniazko eta frantsesezko sinonimoak ere ematen ditu.

Erregistratutako izen geografikoak Geografia Fisikoaren eta Giza Geografiaren arloetakoak dira eta ordena alfabetikoan antolatu dira.

“Lurzoru poluituak” posterra

IHOBE INGURUMEN IHARDUKETARAKO SOZIALTATE PUBLIKOA

Poster honetan, kutsatutako lurzoruen adibide asko irudikatu dira, bai landa ingurukoak, bai hiri ingurukoak. Erreferentzia ona izango da gaia lantzeko: adibide guztiak aztertzea ahalbidetuko digu, abeletxeetako munda kontzentrazio handietatik hasita, ur beltzen isurketa edota industri instalazio batzuen isurketa eta ihesetarako.

Lehen zein Bigarren Hezkuntzako taldeekin erabil daiteke, sakontze maila egokituz.

Posterra jasotzeko:

☎ 900 15 08 64

Edo eskatu honako posta elektronikoa honetan:

publicaciones@ihobe.net



BIDEOA

Kutsaturiko lurzorua. Gure Herriaren erronka

IHOBEK argitaratua.



Bideo honen euskarazko eta erdarazko bertsioak daude, eta 14 minutuko iraupena du. Ikusi ondoren, eztabaida eta hausnarketa sor daitezke.

Kutsatutako lurzoruen sorreraren eta gaur egunera arteko bilakaeraren ikuspegi historikoa eskaintzen digu (lehen aipatutako posterrarekin batera erabil daiteke).

Proyecto curricular del área de ciencias de la naturaleza

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako Materialak.

Artigue, B. et al.

Eusko Jaurlaritz. Gasteiz, 1995.



Material didaktiko hau osatzen duten fitxak irakasleek unitate didaktiko moduan fotokopiatzeko taxutu dira.

Unitate horietarik

bereziki aipagarriak dira *Lurzorua eta bere aldaketak* eta *Harrien meteorizazioa* izenburukoak. Mintzagai horiei buruzko teoriak, iruzkina egiteko egokiak diren prentsako testuak, galdera sortak eta hainbat fitxa dakartza. (Bigarren Hezkuntzako goi ziklorako bereziki taxutua).

CEIDAn eskura daiteke.

EKIPAMENDUAK

Lurkoi Basetxe Eskola



LURKOI Gasteiztik 25 kilometrora dago, Izkiko Parke Naturalaren ondoan; duela 10 urte ekin zion Ingurumen Hezkuntzari eta, horretarako, abeletxea, baratzea eta erabilera anitzetarako gune estaliak antolatu zituen baserrian. Euskal baserriaren kulturarekin loturiko tailer tradizionalak gain, inguruetarako irtenaldiak ere antolatzen dituzte, ikastetxeetatik jasotzen dituzten eskariei erantzuteko. Jardueren osagarri, hainbat egonaldi mota eskaintzen dituzte: astebururako aterpetxea, atsedeen etxea edo udalekua izan daiteke.

Hemen daukazue baserrikoekin harremanetan jartzeko telefonoa eta helbidea:



Santa Luzia, 1
01129 ELORTZA-MAEZTU Araba
☎ 945 410 032
Faxa: 945 410 246
posta-e: lurkoi@euskalnet.net



IRAKURGAIAK

Yo observo los animales bajo tierra

Claude Delafosse eta Gallimard Jeunesse. S.M. Arg. Madril, 1998.

LUR AZPIAN bizi diren animaliak oso modu originalean ezagutzen eta bereizten lagunduko diguten irudiak dakartza liburu interesgarri honek. Berarekin batera datorren linterna *magikoaren* laguntzaz, liburuaren

azetatozko orri zeharrargitsuetan ezkutatzen diren animaliak ikusi ahal izango ditugu.

Oso egokia Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako.



EUSKADIKO INGURUMEN-HEZKUNTZAKO III. JARDUNALDIAK

Jasangarritasuna: HEZI eta BIZI

2002ko azaroaren
28an, 29an eta 30ean
Miramar Jauregia (Donostia)



28, 29 y 30 de noviembre de 2002
Palacio Miramar (Donostia)

III JORNADAS DE EDUCACIÓN AMBIENTAL DE EUSKADI

Sostenibilidad: EDUCAR PARA VIVIR

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

CEIDA

SECRETARÍA TÉCNICA / IDAZKARITZA TEKNIKOA: HAIZELAN Ingurumen Hezkuntza • 12 Posta Kutxatila • 48910 SESTAO (Bizkaia)
Tfnos.: 94 496 77 17 • Faxa: 94 496 67 89 • haizelan@haizelan.com

Jardunaldi hauen xede nagusia Euskal
Autonomia Erkidegoko Ingurumen Hezkuntzaren
Estrategia eraikitze oinarriak finkatzea da.
Planteatu diren helburuak hauexek dira:

- Ingurumen Hezkuntzak jasangarritasun prozesuan daukan eginkizuna indartzea.
- Esperientziak trukatzeko gunea eskaini eta topaketa zein eztabaidarako sareak sendotzea.
- Ingurumen Hezkuntza gure eguneroko jardueran sartzeko bide berriak bilatzea.
- Gizartea jasangarritasunerantz bideratzeko behar diren ekimen eta estrategiak eragile guztien artean zehaztea eta bateratzea.

La finalidad de estas jornadas es sentar las bases para elaborar la Estrategia de Educación Ambiental de la Comunidad Autónoma Vasca. Los objetivos que se plantean son:

- Afianzar el papel de la Educación Ambiental en el proceso de la sostenibilidad.
- Ofrecer un punto de intercambio de experiencias y fortalecer redes de encuentro y debate.
- Buscar nuevas vías para integrar la Educación Ambiental en nuestra práctica cotidiana.
- Coordinar y concretar entre todos los agentes implicados estrategias y acciones para involucrar a la sociedad en la sostenibilidad.

Idazkaritza tekniko / Secretaría técnica:

HAIZELAN. Apartado correos 12 Posta kutxatila
48910 SESTAO (Bizkaia)

© 944 967 717 / Fax-Faxa: 944 966 789

haizelan@haizelan.com

IHITZAren ale guztiak sarean: www.euskadi.net/ihitza Todos los números de IHITZA en la web

Gai hauek prestatzen gabiltza:

10 zk.: Kontsumoa

11 zk.: Aire

12 zk.: Partaidetza

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

Números en preparación:

Nº 10: El consumo

Nº 11: El aire

Nº 12: La Participación

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

CEIDA ingurumen heziketa zure eskura

BILBAO

Ondarroa, 2
48004 Bilbao

- 944 11 49 99
- ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI

Udetxea Jauregia
48300 Gernika-Lumo

- 946 25 71 25
- urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA

Basotxiki, 5
20015 Donostia

- 943 32 18 59
- ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI

Brinkola, z/g
20220 Legazpi

- 943 73 16 97
- ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA-GASTEIZ

Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz

- 945 17 90 30
- ceida-vitoria@ej-gv.es

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN